

BAZKO ONDOKO 4 GARREN IGANDEA C 8 5 2022

« *Ni naiz artzain ona* ». Derauku Jesusek Bokazoioen igande huntan. Artzaingoaren ofizioa, gure Euskal Herria bezain xaharra da. Hor daude mendi magaletan xendrak, milaka urtedanik, ardiek eginak. Gure mendi ta zelaiak artaldeetaz beztituak dira, heien esnea artzainen esku artesen artean bilkatzen delarik ardi gasna preziatu bat.

Hiritar batendako ardi guziak berdinak dira, baina artzainak berexen ditu. Ardi bakoixaren istoria, bere eritsasunak, karaktera gogoan dauzka, eta ardi bakoitzak artzainaren boza du ezagutzen. Bada lotura pertsonal bat ardien eta artzainaren artean.

Artzainaren nortasunaren gibelean badira beraz balore eder batzu, mendez mende transmititzen diren jakintasunak, eta praktikak. Bada balore bat baitezpadakoa dena : emankorra izaita. « *Artzain onak bere bizia ematen du ardientzat !* » derauku Jesusek. Izan euri edo lano, arbasoen ofizio dorpe ta ederrari lotzen dira ; koperatibak egiten dituzte artzaingoaren sustengatzeko, eta sormarkak asmatzen ekoizpenak baloratzeko.

Artzain batekin solastatzen girenean, jakin arazten dauku artzaingoak ainitz galdatzen diola bainan ere ainitz emaiten dakola. Hala da ofizio ainitzekin: gure baitatik bertzeeri ausarki eskaintzen badugu, ainitz dugu ere errezebituko bertzen gandik. Hola da ere apez baten dako. Ainitz emaiten badu, oino geiago du errezebitzen. Apez izaita bokazione biziki eder bat da, on ainitz egiten diona Elizari bai eta gizarteari.

Galdera ba egin dezakegu: zergatik gure Euskal Herrian ba ote dira gazteak gogotik artzaingoari lotzen direnak, izan neska edo mutil, eta ez da antxu nehor apez izan nahi duenik? Nola sustatu, berpiztu apez bokazionea ? Zer egin jendeak begi onez ikusi dezan apezgoa? Ilabete hauetan, sinodoak orroitarazten dauku Apeza ez dela jauntto bat, nagusi bat eta laikoa sehi bat baizik eta denak girela, bataiatu bezala, Jaunaren artaldearen zerbitzuko, bakoitza bere karguarekin. Apeza da noski elgertasun horren egilea, zaintzalea, bermatzailea, bainan beti laikoekin, seglarrekin bat eginik.

Denak gomitatuak gare Jesusen artzaingoaren eskolan sartzea ikasle bezala. Bertzetaz arduratzea, bertzeak errespetatzea eta ezagutzea, onartzea bakoitzak duen alde ona; maitatzea Elizan direnak bai eta Elizatik urrun direnak, Jaunaren artaldea Eliza baino askoz eta zabalagoa delakotz, Paulok eta Timoteok ulertu zuten bezala, ikusi zituztelarik paganoak Jesusen Berri onari lotzen.

Jesusek derauku ardiek artzainaren boza ezagutzen dutela. Gaurko Elizak erronka erraldoi bat du altxatzeko denen artean: nolaz ez dakitenei jakinaraz lezaieke Jainkoaren haur direla, ze eder den Jainkoarekin bide egitea, ze lillugarria den bere maitasunaz gozatzea eta elgar maitatzea! « *Jauna dut artzain, atsedan emaiten daud, pentze gizenean eta iturri lasaietara eramaiten* », dio 22 garren salmoak eta amets bera du egiten Apokalipsako otoitzlariak.

Nahi badugu jendek sendi dezaten, ezagut dezaten Jainkoa artzain on baten parekoa dela, beharrezkoa litzaiguke heietaz gertu izan, onartuz herritar guzien baitan diren argiak. Beharrezkoa litzateke gure bizitzeko manera gatik erakustea Eliza erakarri bat, maitagarri bat. Gure pastoraltzaren, artzaingoaren bitartez, ekoiztea gustu oneko gasna, Berrionaren sormarkaren jastakoa.

Hortan da apezaren eta Eliza osoaren misio ederra ! Artzain onaren bordara doazten xendrak, bidexkak, idekitzea ; emazte ta gizon guzieren eskaintzea Jaunaren Artaldearen partaide izaiteko aukera. Amen

Mikel Epalza

4EME DIMANCHE APRES PAQUES C 8 MAI 2022

« Je suis le bon berger ! » nous dit Jésus en ce jour de prière pour les vocations. Le métier de berger est aussi vieux que le peuple basque, comme en témoignent les sentiers de montagne tracés depuis des millénaires par les brebis. Nos pâturages sont habillés de troupeaux de brebis dont le lait devient d'excellent fromage dans les mains expertes des bergers.

Pour un citadin toutes les brebis sont identiques mais le berger connaît l'histoire et le caractère de chacune et chaque brebis reconnaît la voix de son pasteur. Il y a un lien personnel fort entre berger et brebis.

Il y a de belles valeurs vécues par les bergers, des connaissances et traditions transmises depuis des siècles. Mais il y a une valeur au-dessus des autres ; être généreux. « *Le bon berger donne sa vie pour ses brebis* » nous dit le Christ. Par temps de pluie ou de brouillard, le pasteur vit sa vocation à la fois exigeante et belle ; des coopératives sont mises en place pour soutenir la vie pastorale et des labels de qualité pour valoriser les fromages.

Quand on parle avec un berger, il nous fait comprendre que sa vocation lui demande beaucoup mais aussi qu'elle lui donne beaucoup de satisfactions. Il en est ainsi de plusieurs vocations : si nous offrons beaucoup nous recevons encore davantage.

La vocation de prêtre est très belle, elle fait du bien à l'Eglise, à la société.

Posons-nous une question : pourquoi au Pays Basque il y a des jeunes, filles et garçons, qui s'attachent volontiers au métier de berger, alors qu'il n'y a presque plus de jeune qui veuille devenir prêtre ? Comment susciter, éveiller la vocation sacerdotale ? Que faire pour que les gens voient la prêtrise d'un bon œil ?

Ces mois-ci, le synode nous rappelle que le prêtre n'est pas un seigneur, un patron, et les laïcs des subalternes, mais que nous sommes tous, en tant que baptisés, au service du troupeau de Dieu, du peuple de Dieu, chacun avec son rôle spécifique. Le prêtre est acteur et garant de communion, en lien avec les laïcs.

Nous sommes tous invités à entrer comme élève à l'école de la pastorale de Jésus. Apprendre à prendre soin des autres, à les respecter et les connaître, à accueillir ce que chacun a de bon, à aimer ceux qui sont dans l'Eglise et ceux qui sont loin de l'Eglise car le troupeau du Christ pasteur est beaucoup plus large que l'Eglise comme Paul et Timothée en font l'expérience quand ils voient les païens avoir faim de la Bonne Nouvelle du Royaume.

Jésus nous dit que « *les brebis connaissent sa voix* ». Voilà un défi de taille que nous avons à relever entre tous : comment révéler à ceux qui ne le savent pas que Dieu est un Bon Pasteur, qu'ils sont enfants de Dieu, qu'il est bon de marcher avec Dieu, qu'il est merveilleux d'être aimé de Lui et de nous aimer les uns les autres. « *Le Seigneur est mon berger, il me remplit de joie, me conduit vers les verts pâturages et aux sources d'eau vive !* » dit le psaume 22 repris par l'Apocalypse.

Si nous voulons que les personnes sachent que Dieu est un Bon Berger, nous avons à vivre proche d'eux, à les accueillir avec les lumières qu'il y a en eux ; à témoigner par notre manière de vivre d'une Eglise attirante, cordiale. Il faut que le fromage produit par nos pastorales ait un bon goût, le goût du label évangélique.

Telle est la belle mission du prêtre et de toute l'Eglise : ouvrir des sentiers qui conduisent à la bergerie du Bon Pasteur ; permettre à chacun d'être membre vivant du Peuple de Dieu, du Bon Pasteur de l'humanité. Amen